

Gida didaktikoa

**HAN ETA HEMENGO
IPUINAK II**

Hiru altxorak

Hiru altxorrak

Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

Bibliografia 15.or.

Egileak 16.or.

HELBURUA:

Bideoan ikusitako istoriotik abiatuta, fikziozko testu narratibo bat ekoiztea, antzezpen-saioa prestatzeko. Kanala: ahozkoa. Eremua: lagunartekoa. Hartzailea: haurrak eta gurasoak. Testua ekoizteko, planifikazioko, testuratzeko eta gainbegiratzeko eragiketak egingo dira.

EDUKIAK:

NARRAZIOARI BURUZKO KONTZEPTUAK:

ESPAZIOA: Hartzaileak ez du espazio osoaren berri izango, mugatua baizik. Espazioaren berri izango du aztarnetan oinarritutako inferentziak eginez. Beraz, dekoratuak egiterakoan, horretaz jabeaziko ditugu haurrak, eta elementu gutxirekin irudikatu duten leku fantastikoaren berri emateko zer egingo duten.

TRAMA: Hartzaileak nola izango duen gertakarien berri. Kasu honetan, trama kronologikoa erabiliko dugu.

ELIPSIA ETA LABURPENA: traman aurrera egiteko, dena ez da kontatuko, eta batzuetan elipsia edo laburpena erabiliko da.

ESZENA: Gertakari batzuk eszenen bidez azalduko dira; hau da, gertaera osoa antzeztuko da. Elkarrizketaren bidez azalduta daude eszenak. Elkarrizketei dagozkien jarduerak, keinuak eta jarrera zehaztu beharko dira.

PERTSONAIAK: Pertsonaien jokabidea hartzaileek ulertuko badute, haien izaeraz eta itxuraz hausnartu beharra dago.

Deskribatu pertsonaiak fisikoki.

Deskribatu pertsonaiak psikikoki.

Kokatu espazioan.

Deskribatu espazioa.

NARRATZAILEA:

Orojakilea (3. pertsona);

PLANIFIKAZIOA:

EGITURA: Testu-sekuentzia bat izango da, sekuentzia narratiboen artean sekuentzia deskriptiboak izango dituen.

Izendatu pertsonaiak.

Narratzailearen laburpena, traman aurrera egiteko eta gertaera orekatzaileak iragartzeko.

Sekuentziak: elkarrizketak

POLIFONIA : Narratzailearen bitartez deskripzioak ematea: zeharkako diskurtsoa.

Pertsonaien bitartez gertakarien berri ematea: diskurtso zuzena.

TESTURATZEA:

KOHERENTZIA:

Inguruaren koherentzia:

Dekoratuak eta musika.

Intonazioa eta keinuak:

Enuntziatiboa; Harridurazkoa; Haserrea; Poza; Tristura; Beldurra; Misterioa; Iseka; Malenkonia; Erabakia; Euforia; Zalantza; Galdera; Ondorioa;

Izenen kohesioa:

Anafora nominala :

-a, -ak, -k, -ek

zein(a) ... bait-, ...-neko

Ondoren aipatzen den testuan oinarrituta, jolas moduko bat egin daiteke:

WHAN: ... proba bat jarriko dizuet. Eta ahalmen handiena nork erakusten duen, huraxe izendatuko dut oinordeko. (Ad Lib)

XIAO: Zer proba jarriko diguzu?

Ariketa : Hurrek aitarena egingo dute, txandaka, eta ikaskideen artean kromoak edo marrazkitxoak banatuko dituzte. Horretarako, testuaren birformulazioak egingo dira (ezaugarri onak aipatu egin behar dira, eta antolatu egin behar da ikasle guztientzat oparia izan dadin!) :

Aitarena: ... umorerik hoberena erakutsi duenak kromo hau lortu du, eta, nire ustez, x da.

Aitarena: ... kemen handia erakutsi dutenek kromo hau lortu dute.

Aitarena: ... Marrazki hau X(r)entzat da, lagun ona baita....

Aditzen kohesioa:

Gertakari desorekatzaileak nabarmentzeko, aditzaren aspektu burutua erabiliko da narratzailearen sekuentzietan.

Honako testu-zatiaren inguruan hausnar daiteke: zer esan behar da, erabakiak hartzen zituela ala hartu zituela. Hor dago aukera aditzaren aspektuaz hitz egiteko eta kontrastea egiteko. Anaiak behin bakarrik egin zioten ala normalean egiten zioten? Erabili kontrastea aspektua nabarmentzeko.

NARRATZAILEA: Ba, ikusten duzue, anaiak lelotzat zeukaten Xiao, eta egunero-egunero adarra jotzen ari zitzaizkion. Aitak, hori ikusita, erabaki bat hartu eta azaldu zien.

Aditz perifrastikoak: Nor(zer)-nork, indikatiboko orainaldia.

ANTOLATZAILEAK:

Begirada, puntuazioaren intonazioa: itxaronaldiak sortzeko, askaera iragartzeko...

Gairatzeko: Behin batean, Bazen behin,...

Gertakari desorekatzaileak iragartzeko, narratzailearen testuan: Halako batean, une hartan, orduan, ...-nean,

Denborazko antolatzaileak, eszenen antzezpena prestatzen denean: noiz agertuko zara, noiz esan beharko duzu, ...

Amaitzeko: Zorion entzun duenarentzat, zorion kontatu duenarentzat.

DEKLINABIDEA: Nork, Nori, Norengana (sg. eta pl.)

Saioa prestatzerakoan nork esaten duen, nori esaten dion eta norengana joan behar duten zehaztu behar denez, aukera ezin hobea da deklinabideko marka lantzeko.

LEXIKOA:

Izenondoak: pertsonen izaera deskribatzeko.

Biraoak.

Aditzondoak: ekintzen izaera deskribatzeko

ANTZEZPENA EGITEKO GIDOIA

Oharra: Narratzailearen rola irakasleak egin dezake, oso luzea baita.

NARRATZAILEA: Ekialde urrunean, bazen behin agure bat.

NARRATZAILEA: Nekazaria zen eta hiru seme zituen: Xiao, Txan eta Jao.

NARRATZAILEA: Oso zaharra zenez, baserria nori utzi behar zion erabaki nahi zuen. Zalantza handia zuen, semeen arteko harremanak ikusita batez ere...

TXAN: Ji, ji, ji... Orain! Kar-kar-kar...

JAO: Ixxxxoo! Ji, ji, ji... Bai! Kar-kar-kar... Tuntun halakoa!

Aaaaii! Aaaaii! Madarikatuak! Emango dizuet, bai, zuei!

JAO: Ja, ja, ja... Ikusi duzu nola jarri den?

TXAN: Kar-kar-kar... Baai! Madarikatuaaak! Kar-kar-kar...

WHAN: (Zurrungak)

XIAO: Tarari, tararooo...

JAO: Kar-kar-kar... Ikusiko duzu nola irentsiko duen amua!

TXAN: Ji, ji, ji... Baii! Ji, ji, ji...

JAO: Begira... Xiao! Xiao, zatoz hona!

XIAO: E? A! Zer nahi duzue?

JAO: Begira! Ikusten duzu txanpon hau?

XIAO: (Inozente) Bai

NARRATZAILEA: (OFF) Zer ba?

JAO: Baietz zure muturren aurrean desagerrarazi! Ez badut lortzen, zuretzat izango da.

XIAO: Ondo da. Baina, agertzen ez bada, nik ez dizut ezer ere zor, e?

JAO: Ez ba! Ez horixe!

TXAN: (Barre) Bai azkarra!

JAO: Begiratu adi-adi nire eskuei, e? Ezer ez hemen, ezer ez han. JAO: (Ad Lib)

XIAO: Bai, bai... (Ad Lib)

XIAO: Ezer ez hemen.. ezer ez...

TXAN: Kar-kar-kar...

JAO: Tiriki, tiriki... To!

XIAO: Autx!

TXAN: Kar-kar-kar...

WHAN: (Ad Lib)

TXAN: (Barrez lehertzen) Tontoa da gero! Amua irentsi du!

XIAO: Au! Ai! Madarikatuak! Ai!

TXAN: Tentela halakoa! Ja, ja, ja! Amua irentsi duzu! Inozo ederra zara!

JAO: Kar-kar-kar... Babalorea baino tentelagoa zara!

WHAN: Ai, seme hauek!

XIAO: Ergel hutsak zarete! Nazkatzen hasita nago, eta egunen batean ikusiko duzue! (Ad Lib) (Ad Lib)

JAO: (Barre) Ergelak? Gu? Bai zera! Kar-kar-kar...

TXAN: (Barre) Ergela zeu izango zara, eta galanta! Kar-kar-kar...

WHAN: Aaii! Zer egingo dut nik orain?

WHAN: Ene! Zer egin dezaket? Ai, ene! Hau zoritxarra!

NARRATZAILEA: Ba, ikusten duzuenez, anaiak lelotzat zeukaten Xiao, eta egunero-egunero adarra jotzen zioten.

WHAN: Nik asko maite zaituztet hirurok, eta oso zail egiten zait aukeratzea. Beraz, oinordekoa aukeratzeko...

WHAN: ...proba bat jarriko dizuet. Eta ahalmen handiena nork erakusten duen, huraxe izendatuko dut oinordeko. (Ad Lib)

XIAO: Zer proba jarriko diguzu?

WHAN: (Ad Lib) Munduan zehar joango zarete, eta urtebeteren buruan itzuliko zarete. Aberastasun handienak ekartzen dituen izango da nire oinordekoa. Bai?

XIAO: Ai, ai, ai... Gehiegi izango da niretzat (Ad Lib)

JAO: Kar-kar-kar... Primeran, aita! Kar-kar-kar...

TXAN: Hori egina dago! Erraza baino errazagoa! (Barre)

NARRATZAILEA: Eta abiatzeko unea iritsi zen.

TXAN: Goazen, Jao. Gaur da eguna.

JAO: Bai, goazen.

XIAO: Ai, ai, ai...

TXAN: Erraz irabaziko diogu guk Xiaori, gure kontra ez du aukerarik batere.

JAO: Bai. Hala ere, ez ezazu arreta galdu gero. Eta gu bion arteko onenak irabaz dezala.

XIAO: Ai, zer egingo dut nik...?

WHAN: Tori! Har ezazue! Diru hau ondo erabilita, are aberastasun eta ondasun gehiago lortuko duzue.

XIAO: Agur, aita! Egon lasai, zuk esandakoa beteko dugu!

TXAN: Bai... Agur, aita!

WHAN: Agur...

JAO: Laster arte, aita!

WHAN: Agur... agur... (Ad Lib)

NARRATZAILEA: Eta, hala, aberastasun eta altxor bila abiatu ziren hiru anaiak.

XIAO: Ene, hauxe da erreka zabala. Nola gurutzatuko dut?

XIAO: Nola demontre zeharkatuko dut ba?

NARRATZAILEA: Kaixo.

FUNG: Kaixo.

XIAO: Nondik pasa naiteke?

FUNG: Uuhm... Ez dago zubirik. Buelta handia egin behar da, leku estuago bat aurkitu arte.

XIAO: Eta zergatik ez duzue zubi bat eraikitzen?

FUNG: Oso pobreak garelako. Beti egin nahi izan dugu, baina ezin!

XIAO: Ba... nik... zerbait egin behar dut...

NARRATZAILEA: Bitartean, beste bi anaiak beren bideari ekin zioten, nork bereari.

XIAO: Nik lagunduko dizuet.

FUNG: Zuk?

XIAO: Dirua daukat, eta zubia egiteko utziko dizuet.

FUNG: O, eskerrik asko, eskerrik asko!

NARRATZAILEA: Xiaoren diruarekin, zubi sendoa eraiki zuten. Inguruko herritarrak oso pozik zeuden, azkenean ibaia arriskurik gabe zeharkatu ahal zutelako! Baina orduantxe konturatu zen gure Xiao urtea amaitua zela eta etxera itzuli behar zuela.

FUNG: A, zoragarri geratu da!

XIAO: Bai, ezta?

FUNG: Eta oso polita da gainera. Luze iraungo du. Igartzen zaio taxuz egina dagoela. Eskerrik asko. Zure laguntza gabe, ezinezkoa izango zen.

XIAO: (Musu)

FUNG: (Musu) Inoiz izan ez nuen semea bezala maite zaitut.

XIAO: (Barre) Mila esker, mila esker. Nik ere maite zaitut.

XIAO: Ene, ezin naiz etxera itzuli, miseria gorrian nago eta! Aita gozoa jarriko da, eta anaiek barre egingo didate!

FUNG: Askok gustatu zait gure alde egin duzuna. Egindakoak saria merezi du. Har ezazu amu hau. Bihar, zubiaren erdian jarri ostean, hiru aldiz botako duzu uretara.

FUNG: Lehen aldian, txanpon-poltsa bat harrapatuko duzu. Ba, poltsa astindu, eta berehala urrezko txanponak sortuko dira.

FUNG: Bigarren aldian, pitxer bat aterako duzu. Pitxerrak, nahi duzun guztietan, nahi adina ardo gozo-gozoa emango duzu.

FUNG: Eta, hirugarren aldian, makila bat aterako duzu. Makilarekin pertsona bat joz gero, gaztetu egingo da. Baina, kontuz, makila hiru aldiz baino ezin da erabili.

XIAO: Ooo, hiru aldiz?

FUNG: Bai, hiru aldiz...

XIAO: Aaaa!

FUNG: Agur!

XIAO: Agur.

NARRATZAILEA: Xiaok horixe bera egin zuen eta poltsa, pitxarra eta makila lortu zituen. Etxera abiatu zen eta, bidean, anaiekin elkartu zen. Etxera heldu zirenean...

WHAN: Zer moduz moldatu zarete?

XIAO: Primeran!

WHAN: A, bai?

XIAO: Bai...

TXAN: Nik ikusi ditut... herrialde zoragarriak...

JAO: Ea nik... Eta nik...

WHAN: Ejem... Zer ekarri duzu?

TXAN: Ba, nekazari batentzat arroza baino gauza garrantzitsuagorik ez dagoenez gero, zaku hauek guztiak bete arroz ekarri ditut. Urte askorako izango dugu.

WHAN: (Ad Lib) Oso ondo, seme, hori da ideia bikaina!

TXAN: (Barre)

WHAN: Eta zuk, seme, zer ekarri duzu?

JAO: Ba, nik pentsatu dut janzteia oso garrantzitsua dela. Hortaz, zetazko oihalak ekarri ditut. Eta nik esango nuke bizitza osorako ditugula.

WHAN: Uuhm... Oso ondo, seme, oso ideia bikaina izan duzu! Aberastasun handiak ekarri dituzu, alajaina! Eta zuk, seme, zer ekarri duzu zuk?

XIAO: Uuhm... Hau!

TXAN: Hori besterik ez? (Barre)

JAO: (Barre) Ziur diru guztia lapurtu diotela! Ja! Ja! Ja!

WHAN: Xiao, zer egin duzu? Diru guztia galdu?

XIAO: Ez, aita. Egon pixka batean, eta ikusiko duzu. Egon lasai!
Begira ezazue, diru-zorro honek nahi dugun diru guztia emango digu. Har ezazue, nahi adina izango dugu!

WHAN: (Ad Lib) Xiao, hau bai aberastasun handia! Hau ospatu beharra dago!

XIAO: Ospatzeko ere zerbait ekarri dut. Pitxer honek nahi dugun adina ardo gozo emango digu. Edan, edan, edan ezazue!

WHAN: Bai, bai... (Ad Lib)

TXAN: (Ad Lib) Bai gozoa! Uuuuhm! (Barre)

JAO: Bai, gozo-gozoa! (Barre)

WHAN: Xiao, nola lortu dituzu aberastasun hauek?

XIAO: Gero kontatuko dizut. Lehendabizi, hirugarren aberastasuna erakutsi behar dizut.

WHAN: Ez, ez, seme! Ez nazazu jo!

TXAN: Zer egiten duzu, anai lotsagabe horrek?

JAO: Burua pitzatuta daukazu, ala?

XIAO: Ez, ez, ikusiko duzue.

WHAN: Hara, gainera hau! Iufala! Gaztea naiz! Gaztea naiz!

XIAO: Itzela! Galanta zaude, gainera!

WHAN: Gaztea naiz, la, la, liro, liro! Gaztea naiz berriro!

NARRATZAILEA: Eta badakizue, zorion entzun duenarentzat eta zorion kontalariarentzat.

Gidoi literarioa:

Hiru altxorak

MARI: Ekialde urrunean, bazen behin agure bat. / Nekazaria zen eta hiru seme zituen: Xiao, Txan eta Jao. / (OFF) Eurok dira "HIRU ALTXORRAK" ipuineko protagonistak.

TXAN: Lasai, aita. Ez da ezer izango.

WHAN: Aaiii... Oso zaharra naiz dagoeneko, eta uste dut urte gutxi barru hilko naizela.

XIAO: / Hori inork ez daki. Gainera, oraindik ondo zaude. Ez pentsatu horretan.

XIAO: Bizirik zauden bitartean, ez kezkatu.

WHAN: Ez nau neure heriotzak kezkatzen.

XIAO: E?

TXAN: Hortaz, zerk kezkatzen zaitu?

WHAN: Baserria nori utzi behar diodan, horixe da nire kezka.

JAO: Baserria... noski...

TXAN: Baaiii...

XIAO: Nori utzi behar diozun? Ba, lasai egon, zure erabakia onartuko dugu-eta.

WHAN: Baserriak ez du ematen denak bizitzeko adina; beraz, oinordeko bakarria izendatu behar dut

XIAO: Ondo da. Baina ez dago presarik. Pentsatu lasai eta hartu nahi duzun erabakia.

JAO: Baserriaa...

TXAN: Juuuuhmm...

MARI: Egunak joan, egunak etorri, aitak ez zekien zer erabaki, nor izendatu oinordeko. Gainera gero eta zalantza handiagoak zituen, semeen arteko harremanak ikusita batez ere...

TXAN: Ji, ji, ji... Orain! Kar, kar, kar...

JAO: Ixxxxoo! Ji, ji, ji... Bai! Kar, kar, kar... Tuntun halakoa!
XIAO: E? Aaaaai! Aaaaai! Madarikatuak! Emango dizuet, bai, zuoi!
JAO: Ja, ja, ja... Ikusi duzu nola jarri den?...
TXAN: Kar, kar, kar... Baai! Madarikatuaak! Kar, kar, kar...
WHAN: Zurrungak
XIAO: Tarari, tararooo... / Kaixo!
JAO: Kar kar, kar... Ikusiko duzu nola irensten duen amua!
TXAN: Ji, ji, ji... Baii! Ji, ji, ji... /
JAO: Begira... Xiao! Xiao, zatoz hona!
XIAO: E? A! Zer nahi duzue?
JAO: Begira! Ikusten duzu txanpon hau?
TXAN: (Barre)
XIAO: (Inozente) Bai / (OFF) Zer ba?
JAO: Baietz zure muturren aurrean desagerrarazi! Ez badut lortzen zuretzat izango da.
XIAO: Ondo da. Baino agertzen ez bada, nik ez dizut ezer ere zor, e?
JAO: Ez ba! Ez horixe!
TXAN: (Barre) Bai azkarra!
JAO: Adi-adi begiratu nire eskuei, e? Ezer ez hemen, ezer ez han.
XIAO: Bai, bai...
XIAO: Ezer ez hemen... ezer ez...
TXAN: Kar, kar, kar...
JAO: Tiriki, tiriki... To!
XIAO: Autx!
TXAN: Kar, kar, kar...
TXAN: (Barrez lehertzen) Tontoa da gero! Amua irentsi du!
XIAO: Au! Ai! Madarikatuak! Ai!
TXAN: Tentela halakoa! Ja, ja, ja! Amua irentsi duzu! Inozo ederra zara!
JAO: Kar, kar, kar... Babalorea baino tentelagoa zara!
WHAN: Ai, seme hauek!
XIAO: Ergel hutsak zarete! Nazkatzen hasita nago, eta egunen batean ikusiko duzue!
JAO: (Barre) Ergelak? Gu? Bai zera! Kar, kar, kar...
TXAN: (Barre) Ergela zeu izango zara, eta galanta! Kar, kar, kar...
WHAN: Aaii! Zer egingo dut nik orain?
WHAN: Ene! Zer egin dezaket? Ai, ene! Hau zoritxarra!
MARI: Ba, ikusten duzueenez, anaiek lelotzat zeukatzen Xiao, eta egunero-egunero adarra jotzen ari zitzaizkion.
XIAO: Ea... ea...
JAO: Xiao! (Barre)
TXAN: Kaixo! Kar, kar, kar...
MARI: Beste egun batean...
TXAN: Txingotea bizkarrean jarri eta herrira joateko esango diogu. Barrez lehertzekoa izango da, ikusiko duzu. / (Barre)
JAO: Ikusteko irrikaz nago! (Barre)
TXAN: Ji, ji, ji... Zu ixilik, Kar, kar, kar...
JAO: Goazen, goazen... orain... Kar, kar, kar...
WHAN: E?... Baina...
TXAN: Aupa! Zer moduz joan zaizu goiza?
XIAO: Ondo. Eta zuri?
TXAN: Ufa! Oso neketsua izan da.

JAO: Kaixo! On degizuela!

WHAN: Eskerrik asko!

XIAO: Eskerrik asko / Berdin!

TXAN: Kar, kar, kar...

JAO: Kar, kar, kar...

TXAN: Eehm... Xiao, mesede bat egingo didazu? Errementariarenera joan behar dut igitaia hartzera, baina oso nekatuta nago.

JAO: Ni joango nintzateke zure ordeztu, baina ezinezkoa zait, ukuiluan lan handia dut eta.

XIAO: Ez kezkatu, ni joango naiz.

TXAN: (Barre) / Ergela! (Barre)

JAO: Kar, kar, kar...

WHAN: Baina, zer daramazu? Xiao, egon pixka batean!

XIAO: Zer...?

WHAN: Ez zara konturatu, baina horiek txingote bat jarri dizute bizkarrean. Ai! Noiz ikasiko duzu? Zergatik uzten diezu adarra jotzen? Ene bada, baina noiz ikasiko duzu? Leloegia zara, seme! Mundu guztiak egiten dizu barre.

TXAN: (Barre)

JAO: (Barre)

XIAO: Nazkagarriak halakoak, zaplazteko bana emango dizuet!

WHAN: Et, et, et! Zer zaplazteko eta zaplazteko ondo! Egin behar duzuna da zuhurrago ibili eta ez utzi adarra jotzen!

TXAN: Ez dakit pasatu ez ote garen...

JAO: Kia, ez, ez horixe.

WHAN: Orain gutxi esan nizuen bezala, baserriak ez du ematen denok bizitzeko adina. Hortaz, oinordekoa izendatu behar dut.

TXAN: Eta, erabaki al duzu nori utzi?

WHAN: Ez.

TXAN: (Baxu) Orduan...?

JAO: Orduan?

WHAN: Nik asko maite zaituztet hirurok, eta oso zail egiten zait aukeratzea. Beraz, oinordekoa aukeratzeko...

WHAN: ... proba bat jarriko dizuet. Eta ahalmen handiena erakusten duena, huraxe izendatuko dut oinordeko.

XIAO: Zer proba jarriko diguzu?

WHAN: Munduan zehar joango zarete, eta urtebeteren buruan itzuliko. Aberastasun handienak ekartzen dituen izango da nire oinordekoa. Bai?

XIAO: Ai, ai, ai... Gehiegi izango da niretzat

JAO: Kar, kar, kar... Primeran aita! Kar, kar, kar...

TXAN: Hori egingo dago! Erraza baino errazagoa! (Barre)

MARI: Eta abiatzeko unea iritsi zen.

TXAN: Goazen, Jao. Gaur da eguna.

JAO: Bai, goazen.

XIAO: Ai, ai, ai...

TXAN: Erraz irabaziko diogu guk Xiaori, gure kontra ez du aukerarik batere.

JAO: Bai. Hala ere, ez ezazu arreta galdu gero. Eta gu bion arteko onenak irabaz dezala.

XIAO: Ai, zer egingo dut nik...?

WHAN: Tori! Har ezazue! Diru hau ondo erabilita, are aberastasun eta ondasun gehiago lortuko duzue.

XIAO: Agur, aita! Egon lasai, zuk esandakoa beteko dugu!

TXAN: Bai... Agur, aita!

WHAN: Agur...

JAO: Laster arte, aita!

WHAN: Agur... agur...

MARI: Eta hala, aberastason eta altxor bila abiatu ziren hiru anaiak.

TXAN\XIAO\JAO: (Abestiak)

XIAO: Ene, hauxe da erreka zabala. Nola gurutzatuko dut?

TXAN: Ja! Seguru berandu baino lehen norbaitek iruzur egiten diola eta xentimorik gabe itzultzen dela! Ja! Ja! Ja!

XIAO: Nola demontre zeharkatuko dut ba? // Kaixo.

FUNG: Kaixo. / Nondik pasa naiteke?

FUNG: Uuhm... Ez dago zubirik. Buelta handia egin behar da, leku estuago bat aurkitu arte.

JAO: Kar, kar, kar... Seguru baietz! Hain da tentela, dirua edozein amarrurekin kenduko diote!

TXAN: Bai... Kar, kar, kar...

XIAO: Eta zergatik ez duzue zubi bat eraikitzen?

FUNG: Oso pobreak garelako. Beti egin nahi izan dugu, baina ezin!

XIAO: Ba... nik... zerbait egin behar dut...

TXAN: Agur, Jao. / (Abestia)

JAO: Agur, bai, gero arte. / (Abestia)

MARI: Bitartean, beste bi anaiek euren bideari ekin zioten, bakoitzak bereari.

XIAO: Nik lagunduko dizuet.

FUNG: Zuk?

XIAO: Dirua daukat, eta zubia egiteko utziko dizuet./ (Barre)

FUNG: O, eskerrik asko, eskerrik asko.

MARI: Xiaoren diruarekin, zubi sendoa eraiki zuten. Inguruko herritarrak oso pozik zeuden, azkenean ibaia arriskurik gabe zeharkatu ahal zutelako! Baina orduantxe ere konturatu zen gure Xiao urtea amaitua zela eta etxera itzuli behar zuela.

FUNG: A, zoragarri geratu da!

XIAO: Bai, ezta?

FUNG: Eta oso polita da gainera. Luze iraungo du. Igarri zaio taxuz egina dagoela. Eskerrik asko. Zure laguntza gabe, ezinezkoa izango zen.

XIAO: (Musu)

FUNG: (Musu) Inoiz izan ez nuen semea bezala maite zaitut.

XIAO: (Barre) Mila esker, mila esker, nik ere maite zaitut.

WHAN: Eztulak

XIAO: Ene, ezin naiz etxera itzuli, miseria gorrian nago eta! Aita gozoa jarriko da, eta anaiek barre egingo didate!

FUNG: Askok gustatu zait lagun hurkoaren alde egin duzuna. Egindakoak saria merezi du. Har ezazu amu hau. Bihar, zubiaren erdian jarri ostean, hiru aldiz botako duzu uretara.

XIAO: (Tartean adlibak)

FUNG: Lehen aldian, txanpon-poltsa bat harrapatuko duzu. Ba, poltsa astindu, eta berehala urrezko txanponak sortuko dira.

FUNG: Bigarren aldian, pitxer bat aterako duzu. Pitxerrak, nahi duzun guztietan, nahi adina ardo gozo-gozoa emango dizu.

FUNG: Eta, hirugarren aldian, makila bat aterako duzu. Makilarekin pertsona bat joz gero, gaztetu egingo da. Baina, kontuz, makila hiru aldiz baino ezin da erabili.

XIAO: Ooo, hiru aldiz?

FUNG: Bai, hiru aldiz...

XIAO: Aaaa!

FUNG: Agur!

XIAO: Agur.

XIAO: Adar-jotzea ote da? Aitak ikusten duenean diru guztia amu honen truke eman dudala, bereak eta asto beltzarenak esango dizkit!

Bueno, Xiao, probatzeagatik gauzak ez dira gehiago okertuko!

XIAO: Xiao, nik uste dut oraingoan ederki jo dizutela adarra, gogotik gain(era)... E? e? e? e?
Ez da ba egia izango! / Iufala! Egia zen! Ez zen txantxa! Iufala! (Barre) Hau zortea nirea! Ja!
Ja! Ja!

FUNG: (OFF) Bigarren aldian, pitxer bat aterako duzu. Pitxerrak, nahi duzun guztietan, nahi adina ardo gozo-gozoa emango dizu.

XIAO: (Barre)

XIAO: (OFF) Zatoz hona, pitxer maitea, zatoz! / Iufa! Pitxerra! Honekin nahi dudana adina ardo izango dut! / (Abestia)

FUNG: (OFF) Eta, hirugarren aldian, makila bat aterako duzu. Makilarekin pertsona bat joz gero, gaztetu egingo da. Baina, kontuz, makila hiru aldiz baino ezin da erabili.

XIAO: (Mozkortuta) Ai, ai, ai, ai... orain bai anaiek begirunea izango didate, eta aita harro egongo da nitaz... (OFF) (ON) Kar, kar, kar... Eta, azkenik, makila! (Barre)

TXAN: Honez gero gartzelan izango da, seguru!

JAO: Horixe... (Barre) Kaiolan sartuta!

WHAN: Non egongo ote da Xiao? Non? Non? / Ai, oso berandu da. Non sartu ote da Xiao?

XIAO: (Abestia)

MARI: Xiao etxerantz zetorren pozez zorutzen! Aitari eta anaiei lortutakoa erakusteko irrikaz zegoen. Etxera heldu orduko, hantxe zeuden jada anaiak eta aita. // (OFF) Anaiak harro-harro zeuden. Eta Xiaok ezer ekarriko ez zuela uste zutenenez, ez zioten galdetu ere egin.

TXAN: Horrek ez zuen ezertxo ere ekarriko. Babalore ergela! (Barre)

JAO: Horrek? Nolatan ba? Ez du ezertarako balio. (Barre)

WHAN: / Zer moduz moldatu zarete?

XIAO: Primeran!

WHAN: A, bai?

XIAO: Bai...

TXAN: Nik ikusi ditut... herrialde zoragarriak...

JAO: Ea nik... Eta nik...

WHAN: Ejem... Zer ekarri duzu?

TXAN: Ba, nekazari batentzat arroza baino gauza garrantzitsuagorik ez dagoenez gero, zaku hauek guztiak bete arroz ekarri dut. Urte askorako izango dugu.

WHAN: Oso ondo, seme, hori da ideia bikaina!

TXAN: (Barre)

WHAN: Eta zuk, seme, zer ekarri duzu?

JAO: Ba, nik pentsatu dut janzea oso garrantzitsua dela, hortaz, zetazko oihalak ekarri ditut. Eta nik esango nuke bizitza osorako ditugula.

WHAN: Uuhm... Oso ondo, seme, oso ideia bikaina izan duzu! Aberastasun handiak ekarri dituzu, alajaina! Eta zuk, seme, zer ekarri duzu zuk?

XIAO: Uuhm... Hau!

TXAN: Baina, zer egin duzu? Ekarri duzun guztia poltsa horretan sartzen zaizu? (Barre)

JAO: (Barre) Ziur diru guztia lapurtu diotela! Ja! Ja! Ja!

WHAN: Xiao, zer egin duzu? Diru guztia galdu?

XIAO: Ez, aita. Egon pixka batean, eta ikusiko duzu. Egon lasai!

XIAO: Begira ezazue, diru-zorro honek nahi dugun diru guztia emango digu. Har ezazue, nahi adina izango dugu!

WHAN: Xiao, hau bai aberastasun handia! Hau ospatu beharra dago!
XIAO: Ospatzeko ere zerbait ekarri dut. Pitxer honek nahi dugun adina ardo gozo emango digu. Edan, edan, edan ezazue!
WHAN: Bai, bai...
JAO: Hartu / Ekarri... / nik ere nahi dut...
TXAN: Bai gozoa! Uuuuhm! (Barre)
JAO: Bai, gozo-gozoa! (Barre)
WHAN: Xiao, nola lortu dituzu aberastasun hauek?
XIAO: Gero kontatuko dizut. Lehendabizi, hirugarren aberastasuna erakutsi behar dizut.
WHAN: Ez, ez, seme! Badakit barre asko egin dugula zure kontura, baina ez nazazu jo!
TXAN: Zer egiten duzu, anaia lotsagabe horrek?
JAO: Burua pitzatuta daukazu, ala?
XIAO: Ez, ez, ikusiko duzue.
WHAN: Hara, gainera hau! Iufala! Gaztea naiz! Gaztea naiz!
XIAO: Itzela! Galanta zaude gainera!
TXAN: Ooooo! Nola lortu du ordea?
JAO: Aaaaaah! Ideiarik ere ez daukat.
WHAN: Gaztea naiz, la, la, liro, liro! Gaztea naiz berriro!
GIAN: Kaixooo!
WHAN: Iufala! Gaztea naiz! Gora XIAO!
GIAN: E? Txoratuta dago! / Baina, baina... Zer diozu, Kun?
WHAN: Je... Entzun duzuna, Xiaok gaztetu egin nauela! Ez al nauzu ikusten?
Kar, kar, kar...
GIAN: Uuuuhm... Hori ezinezkoa da!
WHAN: Ba, ez! Ez al nauzu ikusten? E?
GIAN: Eta... eta... Nola egin du?
WHAN: Makila magiko bat ekarri du. Harekin kolpe bakar bat eman, eta gaztetu egin naiz.
GIAN: Uuuuhm... Hori ez da egia! Tira, ba... Erakutsi!
WHAN: Uuuuhm... Begira, hau da! Orain sinetsiko didazu?
GIAN: Bai, sinesgaitza bada ere, sinetsi egiten dizut. Utzi ukitzen!
WHAN: Oso ondo, seme, oso ondo...
WHAN: (OFF) Begira, makila arrunta dirudi, baina mag... E! E! Eman, ez kendu! Ez, ez...
GIAN: Agur, inozo hori!
WHAN: Sorgin gaizto hori! Lapurra!
XIAO: Lapurraaaa! Lapurraaaa!
GIAN: Agur, eta eskerrik asko! Orain gaztea izango naiz betiko! Kar, kar, kar...
XIAO: Ene, hau zoritxarraaaa!
MARI: (OFF-ean hasi) Ai, Xiao... Xiao...
MARI: Eta hala gertatu zen. Beno, niri horrela kontatu didate behintzat.
MARI: Agur, haurrak! Zintzoak izan, eta kontuz makilekin, e?
XIAO: Aguur! / Bai, kontuz... agur...
MARI: Agur! Hurrengora arte!

BIBLIOGRAFIA.

AZKUE, R. M. (1989). Euskalerriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.

Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.

DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea.

Donostia

BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco.

Donostia

BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.

JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea.

Bartzelona.

ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.

CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona

GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.

AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.

El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.

PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.

GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya

TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya

BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

EGILEAK

**GOIATZ
MULTIMEDIA, S.L.**

PRODUKTOREA:
Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**
Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN
EUSKARAKO ARDURADUNA:**
Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**
Mikel Val

SOINU BANDA:
Inhar Val

EDIZIOA:
Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:

Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:

Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M^a Rodríguez

K 2 0 0 0 S . A .

Produktore exekutiboa:

Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:

Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:

Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:

Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

EIMA 2000

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:
2004-12-16**

LEGE GORDAILUA: : SS-1037/04

**L.C. PRODUKTOREA
tel.: 945-230715**